



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

**HEZKUNTZA - HEZKUNTZA-ZERBITZUAREN EDO/ETA
INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTE GIAREN
HEZKUNTZA-PROGRAMETAN PARTE HARTZEN
DUTEN IKASTETXEENTZAKO GARRAIORAKO
DIRULAGUNTZEN OINARRIAK. 2026-2027
IKASTURTEA**

**Kultura eta Hezkuntza Saila
Hezkuntza Zerbitzua**

1. ERREGULAZIOA

Deialdi honetako dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erreglamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (aurrerantzean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra). Ordenantza hori 2023ko apirilaren 21eko Osoko Bilkuran onartu zen, eta uztailaren 28an argitaratu zen ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalak ematen dituen dirulaguntzak emateko prozedura arautzeko oinarri orokorrak ezarteko.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrera jo behar dute, ezagutzeko entitateek bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, etab.

2. HITZAURREA

Gasteizko hiriak, Hiri Hezitzaile den aldetik, badu asmo osoz gauzatu nahi duen helburu bat: bertan bizi diren pertsona guztien prestakuntza, sustapena eta garapena. Ildo horretatik, hezkuntza inklusiboaren esparruko jardueren bidez, bere egiten du aniztasunari erantzun beharra, hezkuntza inklusiboak pertsona guztiek, aukera-berdintasunez, ekitatez eta bidezkoa denez, kalitatezko hezkuntza eskura izatea bermatu behar duela ulertuta; mehatxu handienak jasaten dituzten kolektiboek erreparatuko die bereziki hezkuntza horrek, hau da, desorekak eragin ditzaketen egoera gehien pairatzen dituzten kolektiboek. Dirulaguntzen deialdi hau testuinguru horretan biltzen da, hain zuzen.

3. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntzen deialdi hau 2025eko urtarrilaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) jasota dago.

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2026-2027 ikasturtean Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

4. ERAKUNDE ONURADUNAK

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Hezkuntza duten Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2026-2027an Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartu badute eta, horrez gain,

garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko

5. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Gehienez ere 25.000,00 euroko kreditua zuzendu du deialdi honetara Kultura eta Hezkuntza Sailak (Hezkuntza Zerbitzua) 2026-2027 ikasturteari begira, 2027rako udal-aurrekontuan Kultura eta Hezkuntza Sailari dagokion 2319 02 3261 48108 aurrekontu-partidaren kontura.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi hau aldeztetik izapidetzen da, eta, beraz, dirulaguntzak emateko ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebatzen den unean. Baldin eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorrean behin betiko onartzen den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du, baiezko kasuan, dagokion gastu-espeditentea dirulaguntza ebatzi aurretik izapidetuko du, deialdi berririk egin beharrik gabe

6. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

2026eko irailaren 7tik 2027ko ekainaren 18ra bitartean ikastetxeak garraio kolektiboaren esparruan izan ditzakeen gastuetarako emango dira dirulaguntzak, baldin eta Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edo/eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzeko ikastetxeko ikasleek garraio kolektibo horiek erabili behar izan badituzte; hauek dira programa horiek: Magialdia, Arte eta Historia Ibilbideen Programa, Gasteiztxo+, Musika Adierazpena, Energia Eraginkortasunerako Jarduera, Olarizuko Lorategi Botanikoko jarduerak, Urarteko Baratzak Abetxukun, eta Ataria - Salburuko hezeguneeen interpretazio-zentroa.

Garraio publiko gisa hartuko dira bai garraio kolektibo publikoa (autobusa eta tranbia) eta bai ikastetxeak xede horretarako kontratatutako garraio kolektiboa.

7. ESKABIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA, ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

7.1.- Aurkezteko epea: dirulaguntzaren eskaera eta dagokion dokumentazioa nahiz diruz lagundu daitezkeen garraio-gastuaren justifikazioa aldi berean aurkeztuko dira, horretarako ezarritako epean, hots, oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 2027eko ekainaren 25era bitartean (egun hori barne). Eskabideak eta justifikazioa epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

7.2.- Eskabideak eta justifikazioa aurkezteko lekua: eskabideak herritarrentzako arreta-bulegoetan aurkeztu daitezke, bai eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta lege aurreikusitako gainerako moduetan ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutakoaren ildotik.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria, Ikastetxeko zuzendariak sinatuta (SSUN_001 eranskina, udal webgunean eskuragarri)..
- Diruz lagundu daitekeen gastuaren justifikazioa: hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:
 - Memoria eranskina - Ikasturtean erabilitako garraio-zerbitzuak (ATCE_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri), 2026-2027 ikasturtean izan diren arraio-zerbitzuak zehazten dituen, baldin eta Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak edota Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzeko ikastetxeko ikasleek garraio horiek erabili behar izan badituzte.
 - Justifikazio-kontua arrunta (CUJ0_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri) diruz lagundu daitezkeen garraio-gastu guztien zerrendari dagokiona, lotuta dauden jardueretan parte hartzeak eragindako guztizko gastuen arabera.
 - Erabilitako garraio-zerbitzuari dagozkion jatorrizko fakturak eta faktura horien ordainagiriak. Garraio kolektibo publikoa erabili bada, egindako gastua xede horretarako jaulkitako txartelen bidez justifikatu ahal izango da. Guztiek egun eta ordu berean emandakoak izan behar dute, eta hezkuntza-programara joateko egindako ibilbidearekin eta hari dagokion egunarekin bat etorri behar dute.
 - Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa (FSUE_001 eranskina, udalaren webgunean eskuragarri): diruz lagundutako zerbitzua garatzeko erabilitako euskarrietan hizkuntza ofizialak idatziz erabiltzeari buruzkoa, bai eta hizkuntza horiek ahoz erabiltzeari buruzkoa ere.

Erakunde onuradunek Hezkuntzako Udal Zerbitzuak egin beharreko kontrol- eta egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrollekoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1998 Legean edo eskumen hori esleitua duten beste organo batzuetan aurreikusitakoak ere.

Hezkuntza Zerbitzuan dirulaguntzaren eskaera lehenengo aldiz aurkezten denean edo datuak aldatzen direnean, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Banku-erakundeak emandako ziurtagiri eguneratua; agiri horretan, kontu-zenbakia eta kontuaren titularra agertuko dira, kontuan hartuta, betiere, ikastetxeak izan behar duela titularra.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari hamar eguneko epean zuzentzeko eskatuko dio, eta adieraziko dio hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman beharreko ebazpenaren ondoren.

9. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Erakunde onuradunek ezin izango dute proiektu bera aurkeztu Udaleko beste sail edo zerbitzu batzuen dirulaguntzetarako deialdietara.

Deialdi honen barneko dirulaguntza hau bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen bidez eta beste diru-iturri batzuetatik lortzen den finantzaketaren zenbatekoak ezin du gainditu, inoiz ere, diruz lagundu daitekeen gastuaren kostu osoa.

10. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Hainbanaketa-erregimenean emango dira dirulaguntzak, deialdi honen 11. oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Eskabideak jaso, baldintzak egiaztatu eta eskabide horiek izapidetzeko onartu ondoren, diruz lagundu daitekeen gastuaren justifikazioa izanda, balioespen-txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo dira, oinarri espezifiko hauetan zehaztutako irizpideen arabera.

Xede horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eskabideak balioesteko eta dirulaguntzak emateko proposamena egiteko eskumena izango duena. Hezkuntza Zerbitzuko buruak, lehendakari-lanetan; Hezkuntza Zerbitzuko Hezkuntza Ekintzen Ataleko arduradunak, idazkari-lanetan; eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko Herritarrak Aktibatze Arloko buruak osatuko dute organo hori.

Saileko Hezkuntza Zerbitzuak egingo ditu, ofizioz, dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamenerako kontuan hartuko diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Aipatutako organoak eskumenak izango ditu dirulaguntzak emateari buruzko edozein zalantza argitzeko. Eskabide guztien balorazioa jaso eta gero, txosten tekniko bat egingo du, eta deialdi honen ebazpen-proposamena Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkariari igorriko dio, geroago ebatz dezan.

Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntzen arloan eskumenak eskuordetzan emateko 2025eko maiatzaren 16ko erabakiarekin bat etorriz, Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi delegatuari eskuordetzen zaizkio erabaki horren lehenengo atalean adierazitako eginkizunak, besteak beste, deialdiaren ebazpena/emakida onartzea.

11. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa atal honetan aurreikusitako banaketa-sistema aplikatuz zehaztuko da, baina ezin izango du inoiz ere gainditu elkarte bakoitzak egindako gastuaren % 100.

Hauxe izango da banaketa-sistema:

a) Deialdiko kredituaren % 50 onartutako ikastetxeen artean banatuko da proportzionalki, egindako eta onartutako gastuaren arabera. Atal honetan emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu 1.000,00 euroko zenbatekoa.

Atal honetan emango den dirulaguntza honela zehaztuko da:

- Ikastetxeren batzuek dirulaguntzaren 1.000,00 euroko zenbatekoa gainditzen badute, atal horretan eman daitekeen gehieneko dirulaguntza jasoko dute, hau da, 1.000,00 euro.
- Horrelakorik kasurik bada, ikastetxe horiek kontuan hartuta eta, halaber, dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa ere kontuan hartuta, berriro aplikatuko da irizpidea funtsaren gainerako zatiarekin, lehen kalkuluan eman zitekeen zenbateko maximora iritsi ez diren ikastetxeen artean, eta horrela jarraituko da, behar beste aldiz.

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak, ofizioz, deialdian sartzen diren hezkuntza-programetan ikastetxeak izena emanda duen egiaztatuko du, onartutako ikastetxeek gastua eginga dutela adierazi badute.

b) Gainerako kreditua, % 50, onartutako eskabideen artean banatuko da proportzionalki, ondorengo atal hauetako bakoitzean ikastetxe bakoitzak lortu duen puntuazio osoaren arabera:

- Ikastetxean matrikulatutako ikasleei dagokien puntuazioa. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Derrigorrezko Hezkuntzan ikastetxean matrikulatutako ikasleen kopurua adina puntu emango dira, dirulaguntza eskatzeko epea eta justifikazioari dagokiona amaitzen den unean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako azken estatistika-dokumentazio ofizialaren arabera.
- Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Derrigorrezko Hezkuntzan matrikulatutako ikastetxeko ikasle bekadunen kopurua bider 3 eginda ateratzen den puntuazioa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoen kasuan, puntuazio hori bider 2 egingo da berriro, eta ikastetxeak Eraldatzen programan parte hartzen badu, berriz ere bider 2 egingo da.

Bekadun ikasletzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren beka jaso duen ikaslea, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dirulaguntza eskatzeko epea eta justifikazioarena amaitzen denean emandako azken estatistika-dokumentazio ofiziala hartuko da kontuan.

Baldin eta b) irizpidea aplikatu ondoren edota a) irizpideari dagokin zenbatekoa batu ondoren ikastetxe bakoitzak, egindako eta onartutako gastuaren arabera, jaso dezakeen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa gainditzen bada, kalkulu-prozesu bat abiatuko da, eta b) ataleko banaketa-prozesua errepikatuko du behar adina aldiz dirulaguntzaren gehieneko zenbatekora iritsi ez diren ikastetxeen artean, dagokion kreditua agortu arte.

12.EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

12.1. Deialdiaren ebazpena gehienez hiru hilabeteko epean emango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntzaren eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

12.2. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Gasteizko Udaleko iragarki-oholean egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz.

12.3. Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, interesdunek egokitzat jotzen duten beste edozein gauza dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

13.EBAZPENAREN ALDAKETA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 64. artikulua arabera, laguntza emateko ebazpena eman ondoren, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahal izango du, oinarri arautzaileetan horretarako aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira, legearen 17.3 l) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hori baimendu ahal izango da, baldin eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

14.DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntzaren zenbatekoa ordainketa baten bidez gauzatuko du udalak, garraioak eragindako gastua egin ondoren eta justifikatu ostean, 2027ko aurrekontuaren kontura; baina 2027rako udal-aurrekontuan xede horretarako kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da.

15.INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

Deialdi honen esparruan dirulaguntza eskatzeko interesa duten ikastetxeei informazioa eta aholkua emango die Hezkuntza Zerbitzuak. Kontsultak egiteko, bide hauetako bat erabil daiteke: hezkuntza@vitoria-gasteiz.org 945 161215 o 945 161230.